



BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA

KOLON PASEALEKUA 21



Egilea eta data: Lucas Alday; 1924.

Deskribapena

Mehelinen arteko eraikina, behe oina eta jatorrizko sei goi oin dituen, azkena zati batez atzeraemana eta mantsardatua. Harlanduzko fatxada goi oinetan, bao zentraletan hormigoizko begiratoki bikoitza duena. Behe oina kareharriz estalita dago jatorriz. Behe oineko bao bikoitzak fatxada planoan gaituta daude.

Babes erregimena

1. Erregimen orokorra:
 - Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
 - Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta olana eta abarren ezarpena, Plan Berezi honetako Ordenantza Orokorretako babes maila horretarako ezarritako gai horiek erregulatzen dituzten irizpide orokorretara egokituko da.
2. Berariazko erregimena.
 - A. Babesetik kanpo utzitako kanpo elementuak edo zatiak: ez.
 - B. Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
 - C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:
 - * 6. goi oineko teilapea ezabatzea.
 - * Begiratokiaren tratamendua ordenantza orokor horietan ezarritako irizpideetara egokituko da.
 - * Erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutako gainerakoak.